

OHARRAK

IRAKURMENA

IRAKURRI ETA ERANTZUN



Udala

HERRI-AFARIA

Herriko jaiak ospatzeko, herri-afaria egingo da plazan. Parte hartu nahi baduzu, eman izena udaletxean hilaren 7 a baino lehen. Animatu! Primeran pasatuko duzu!

①

Inork ikusi al du nire motxila?
Dutxetan ahaztu zitzaidan atzo. Gornia da eta lore antzeko irudi zuriak ditu.
Barruan esku-oihala, xanpua eta xaboia ditu. Aurkitzen baduzu, eman zaindariari.
Eskernik asko!!

②

Maite, laztana:
Gaur berandu iritsiko naiz eta ez dut erosketak egiteko astirik izango. Joango al zara zu supermerkatuara? Ez ahaztu ogi txigortua ekartzea.

③


IGERIKETA-IKASTAROA
Herriko jaiak direla-eta, ez da igeriketa-ikastaronik izango 8tik 12ra bitartean.

④

Atzo igeri egiteko betaurreko batzuk aurkitu nituen nesken aldagelan. Zureak badira, galdetu zaindariari.

⑤



ADI!

Igerilekurainoko bidea bustita egoten da eta irrist egin ahal duzu. Astiro ibili!

⑥

1.- Zer motatako testuak dira irakurgaiak?

- A. Gutunak dira.**
- B. Albisteak dira.**
- C. Oharrak dira.**
- D. Elkarrizketak dira.**

2.- Non ote dago ohar-aula hori?

- A. Eskolako sarreran.**
- B. Igerilekuko sarreran.**
- C. Liburutegiko sarreran.**
- D. Jantokiko sarreran.**

3.- Zein da lekuz kanpo dagoen oharra?

- A. Lehen oharra.**
- B. Hirugarren oharra.**
- C. Bosgarren oharra.**
- D. Seigarren oharra.**

4.- Zertarako da lehen oharra?

- A. Alkateari zerbait eskatzeko.**
- B. Irakasleari zerbait esateko.**
- C. Zerbaiten berri emateko.**
- D. Gauza bat trukatu edo saltzeko.**

5.- Nork idatzi du hirugarren oharra?

- A. Bost urteko ume batek.**
- B. Oporretan dagoen pertsona batek**
- C. Maiteren senarrak.**
- D. Maitek.**

6.-Nolakoak izaten dira oharrak?

- A. Luzeak eta korapilatsuak izaten dira.**
- B. Laburrak eta argiak izaten dira.**
- C. Argazkidunak eta ordenagailuz idatzitakoak.**
- D. Eskuz idatzitakoak eta marrazkidunak.**

7.- Zergatik ez da igeriketak ikastarorik izango hilaren 8tik 12ra bitartean?

- A. Igerilekuan konpontze-lanak izango direlako.**
- B. Igerilekuan marmokak daudelako.**
- C. Igerilekuan jai bat egingo delako.**
- D. Herriko jaiak direlako.**

8.- Nolakoa da galdu den motxila'

- A. Zuria eta lore gorriduna.**
- B. Gorria eta loreen antzeko irudi zuriduna.**
- C. Gorpilduna eta pisutsua.**
- D. Zuri-gorria eta lore horiduna.**

9.- Zergatik ibili behar da astiro igerilekurainoko bidetik?

- A. Bustita dagoelako.**
- B. Konpontze-lanetan dabiltzalako.**
- C. Aldapa handia dagoelako.**
- D. Eskailera pikoak daudelako.**

10.- Aukeratu egia den esaldia.

- A. Hilaren 7an herri-afari izango da herrian.**
- B. Betiko itxi dute herriko igerilekua.**
- C. Eguzkitarako betaurreko batzuk aurkitu dituzte aldagelan.**
- D. Igeriketa-ikastaroa bertan behera geratu da egun batzuez.**